



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2017IPLE0010

Eguna: 2017-07-19

Ordua: 13:30 – 14:21

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

| | |
|---------------------------------------|-----------------------|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martin Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Olaia Pastoriza Santos | EAJ-PNV |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Urkiri Salaberria Gracia | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHbildu |
| - Ander Goicoechea Ocariz | EHbildu |
| - Ainara Vázquez Martínez | Ehbildu |
| - M ^a Teresa Bernal Monroy | EHbildu |
| - Iker Goñi Salaberria | Ehbildu |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

Bertaratu ez direnak

| | |
|------------------------------|---------|
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHbildu |
|------------------------------|---------|

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIK | Zk / N° | ORDEN DEL DIA |
|---|---------|--|
| 2017ko ekainaren 21eko eta 30eko aktak onartzea. | 1 | Aprobación de las actas del 21 y 30 de junio de 2017. |
| 2016ko ekitaldiko kredituen txertaketa (02 espediente) eta ordezeko kontu-hartzailearen txostenaren komunikazioa. | 2 | Incorporación de créditos del ejercicio 2016 (expediente 02) y comunicación del informe de la interventora accidental. |
| 2016ko Kontu Orokorra. | 3 | Cuenta General 2016. |
| Kreditu transferentzia. | 4 | Transferencia de créditos. |
| Kreditu aldaketa. | 5 | Modificación de créditos. |
| Soldata igoeraren proposamena. | 6 | Propuesta de incremento salarial. |



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

| | | |
|---|-----------|---|
| Tokiko garapen, sustapen ekonomikoa eta enplegu alorreko udal lankidetzahitzarmena: batzorde kudeatzaileen ordezkoak izendatzea. | 7 | convenio de cooperación municipal en materia de desarrollo local, promoción económica y empleo: nombramiento suplentes de la comisión de gestión. |
| Lankidetzahitzarmena eta gozamenkontratua Astigarragako parrokiarekin. | 8 | Convenio de colaboración y contrato de usufructo con la parroquia de Astigarraga. |
| Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena: higiezinaren eskualdaketa. | 9 | Convenio Diputación Foral Gipuzkoa: transmisión inmuebles. |
| Alokairu sozialeko erregimenean Urumea kalea 6 eta 10ko 6 etxebizitza zozketatzeko oinarriak | 10 | Bases para el sorteo de 6 viviendas en régimen de alquiler social en Urumea kalea 6 y 10. |
| Santiagomendiko natur eskola – aterpearen zerbitzuaren kontratuaren luzapena | 11 | Prórroga del contrato de prestación de servicio del escuela medio ambiental – albergue de Santiagomendi |
| EHBildu taldearen mozioa: Altsasuko gertaeren harira fiskaltzak egindako zigor-eskaeraren ingurukoa. | 12 | Moción de EHBildu respecto a las peticiones de penas realizadas por el fiscal sobre los sucesos de Altsasu |
| Informazio, galdera eta eskariak. | 13 | Información, ruegos y preguntas. |

Esan-eginak eta erabakiak



Alkateak HEA23 "Zarkumendegi zabalpena", sagardotegien ordenantzari eta lur urbanizaezineko beste zehaztapenei buruzko HAPOaren aldaketa-espeditatea premiaz gaitzerrendan sartzea eskatu du, aho batez, onartu dena.

1.- 2017ko ekainaren 21eko eta 30eko aktak onartzea.

Ekainaren 21eko bilkurako akta aho batez onartu da.

Ekainaren 30ekoan, aldiz, Ander, Ainara eta Tere zinegotziak abstenitu egin dira, bileran egon ez zirelako, eta gainerakoek alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2.- 2016ko ekitaldiko kredituen txertaketa (02 espeditatea) eta ordezkotxostena (02) eta ordezkotxostena (02) eta ordezkotxostena (02) txostenaren komunikazioa.

2016ko ekitaldiko kredituak ekitaldi honetako aurrekontuan txertatzeko espeditatearen berri eman du alkateak. Espeditatea agiri hauek osatzen dute: kontu-hartzailearen txostena, zinegotzi delegatuaren oniritzia eta proposamena eta espeditate ebazten duen 436/2017 Dekretua.

3.- 2016ko Kontu Orokorra.

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 2016ko Kontu Orokorra onartzea.

Bigarrena.- 21/2003 Foru Arauak, 63.5 artikuluan xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berriaz ezarritakoaren arabera.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

La alcaldesa solicita la inclusión por la vía de urgencia del expediente de modificación del PGOU referido a la AIU 23 Zarkumendegi Zabalpena, la Ordenanza de sidrerías y otras determinaciones de suelo no urbanizable.

1.- Aprobación de las actas del 21 y 30 de junio de 2017.

Se aprueba por unanimidad el acta del 21 de junio.

En la del 30 de junio, en cambio, los concejales Ander, Ainara y Tere se han abstenido porque no estuvieron presentes en la reunión, y el resto han votado a favor. Así pues, el acta queda aprobada.

2.- Incorporación de créditos del ejercicio 2016 (expediente 02) y comunicación del informe de la interventora accidental.

La alcaldesa da cuenta del expediente incorporación de créditos del ejercicio del 2016 en el presupuesto de este ejercicio, que se compone de informe del interventor, visto bueno y propuesta del concejal delegado y Decreto 436/2017 por el que se resuelve el expediente.

3.- Cuenta General 2016.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar la Cuenta General 2016.

Segundo.- De conformidad a lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003, en su artículo 63.5 el Ayuntamiento rendirá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada en los términos que establece su normativa específicamente

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se aprueba por unanimidad.



Astigarragako Udala

idazkaritza - Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

4.- Kreditu transferentzia.

kreditu transferentzi modalitatean kredituak aldatzea onartzen duen Alkatetzaren 858/2017 Dekretuaren berri eman du Alkateak.

5.- Kreditu aldaketa.

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 523.996,03 euroko kreditu aldaketari hasierako onarpena ematea, 1/2017 kreditu gehigarri modalitatean.

Bigarrena.- Espedientea 15 egun balioduneko aldian jendaurrean erakusgai jartzea, alegazioak egiten ez badira espedientea behin betiko onartuta geratuko dela azalduz, beste akordio baten beharrik gabe.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta aurreratu du alegazio-epean alegazioak aurkeztuko dituztela. Gainera, adierazi du abstenitu egingo direla hiru arrazoiengatik; batetik, aurreko kontuhartzaileak proposatuz, diruzaintzako gerakina – proiektu jakin batzuen gastua kuantifikatu arte – ez gastatzea erabaki zuenez udal osoko bilkurak, orain ezin delako gerakin hori erabili; beraz, akordioa bertan behera uztea eskatu du; bigarrenik, aldaketa gehienekin ados egon arren, gabezi asko daudelako (mapa morea, irisgarritasun plana...); eta hirugarrenik, zalantzak dituztelako herri-gunean radarra jartzearekin.

Alkateak erantzun dio ogasun batzordean adierazi moduan, kontuhartzaileak hartutako erabakiaren inguruko txostena egingo duela, eta iraileko udal osoko bilkurara eramango dela. Bestetik adierazi du radarra jartzea ez dela kapritxo bat, beharra baizik, udaltzainek egoera aztertu ondoren istripuak ekiditeko egindako proposamena.

4.- Transferencia de créditos.

La alcaldesa da cuenta del Decreto de Alcaldía 858/2017, por el que se aprueba la modificación de créditos en la modalidad de transferencia de créditos.

5.- Modificación de créditos.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Proceder a la aprobación inicial de la modificación de créditos, en la modalidad de crédito adicional 1/2017, de importe 523.996,03 €.

Segundo.- Someter el expediente a información pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que caso de no formularse alegaciones quedará el expediente aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

Toma la palabra el concejal Andoni y adelanta que presentarán alegaciones dentro del plazo de alegaciones. Además, señala que se van a abstener por tres razones; por una parte, porque, a propuesta del anterior interventor, el pleno municipal acordó no gastar el remanente de tesorería hasta que no se cuantificara el gasto de unos determinados proyectos, y ese remanente no está disponible en la actualidad; por lo que, solicita la suspensión de dicho acuerdo; en segundo lugar, porque, aun estando de acuerdo con la mayoría de las modificaciones, se observan muchas carencias (mapa morado, mapa de accesibilidad...); y en tercer lugar, porque tienen dudas respecto a la instalación del radar en el casco urbano.

La alcaldesa le contesta, que tal y como se indicó en la comisión de Hacienda, la interventora elaborará un informe en torno al acuerdo, y que será llevado al pleno municipal de septiembre. Por una parte, indica que la instalación del radar no es un capricho, sino una necesidad, una propuesta realizada por la policía



Astigarragako Udala

idazkaritza - Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Zinegotziak erantzun dio udal-teknikariek proposamen asko egin ditzaketela, baina erabakia politikoa dela, eta legitimoa den arren, kotxeen abiadurari moteltzeko beste irtenbide batzuk egon daitezkeela (esaterako, zebra-bideetan resaltoak edo konkorrak jartzea)

Alkateak erantzun dio txosten teknikoaren proposamena jarraituko dutela, eta ikusi, horrekin arazoa konpontzen den. Ondoren, proposatutako kreditu-aldaketak zein aldaketei eragiten dien azaldu du.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aldeko 7 botoekin (EAJ-PNVko eta Euskadiko Sozialisteko kideak) eta 5 abstentzioekin (EHBilduko kideak) **onartu** da.

6.- Soldata igoeraren proposamena.

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera udal ordainsarrietan %1eko igoera egitea, 2016ko abenduaren 31ean zutenarekin alderatua.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez onartu** da.

7.- Tokiko garapen, sustapen ekonomikoa eta enplegu alorreko udal lankidetzaren hitzarmena: batzorde kudeatzailean ordezkioak izendatzea.

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Juan Martín Arregui Sagües eta Nerea Zusberro Alberro izendatzea batzorde kudeatzaileko ordezkarien ordezkio.

municipal a fin de evitar accidentes, una vez analizada la situación.

El concejal le contesta que los técnicos municipales pueden realizar muchas propuestas, pero que la decisión es política, y que, aunque sea legítima, puede haber otras soluciones para lograr que los coches aminoren la velocidad (por ejemplo, instalación de resaltos en los pasos de cebra).

La alcaldesa le contesta que se atenderá a la propuesta del informe técnico, y que ya se verá si con eso se soluciona el problema. A continuación, explica a qué cambios afecta la modificación de crédito propuesta.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba** con 7 votos a favor (de los miembros de EAJ-PNV y Socialistas Vascos) y 5 abstenciones (de los miembros de EHBildu)

6.- Propuesta de incremento salarial.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar un incremento en las retribuciones, a partir del 1 de enero de 2017, del 1% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2016.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

7.- convenio de cooperación municipal en materia de desarrollo local, promoción económica y empleo: nombramiento suplentes de la comisión de gestión.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Nombrar a Juan Martín Arregui Sagües y Nerea Zusberro Alberro como



Astigarragako Udala

idazkaritza - Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Akordio honen berri Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalei ematea.

Andoni zinegotziak hitza hartuta azaldu du batzordeko ordezkariak izendatzeko garaian kontra bozkatu zutela eta orain ere horrela egingo dutela, herrian alderdi bozkatuena izan dena, baztertuta gelditu delako. Alkateak azaldu dio bailara mailan alderdien oreka lortu nahi dela, eta beraiek hori bermatu nahi dutela. Eta zinegotziak erantzun dio erabakiarekin ez dela bermatzen udal osoko bilkuraren oreka.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aldeko 7 botoekin (EAJ-PNVko eta Euskadiko Sozialisteko kideak) eta kontrako 5 botoekin (EHBilduko kideak) **onartu** da.

8.- Lankidetzeta-hitzarmena eta gozamen-kontratua Astigarragako parrokiarekin.

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Astigarragako Udala eta Astigarragako parrokiaren artean lankidetzeta hitzarmena onartzea, elizaren sarreraren eskalera azpiko lokala egokitzeko.

Bigarrena.- Astigarragako Udala eta Astigarragako parrokiaren artean gozamen kontratua onartzea, parrokiaren etxebizitza udaleko gizarte zerbitzuak erabiltzeko.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri Astigarragako parrokiari ematea.

Laugarrena.- Alkateari ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena eta gozamen kontratua sina ditzan.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho**

suplentes de los representantes de la comisión de gestión.

Segundo.- Notificar este acuerdo a los ayuntamientos de Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil.

El concejal Andoni toma la palabra y señala que a la hora de designar a los representantes votaron en contra y en esta ocasión harán lo mismo, porque se excluye a la formación que ha sido la más votada en la localidad. La alcaldesa le expone que se quiere lograr un equilibrio entre formaciones de todo el valle, y que eso es lo que ellos van a tratar de garantizar. Y el concejal le responde no se garantiza el equilibrio del pleno municipal.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba** con 7 votos a favor (de los miembros de EAJ-PNV y Socialistas Vascos) y 5 votos en contra (de los miembros de EHBildu).

8.- Convenio de colaboración y contrato de usufructo con la parroquia de Astigarraga.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la parroquia de Astigarraga para acondicionar el local situado bajo las escaleras de entrada a la iglesia.

Segundo.- Aprobar el contrato de usufructo entre el Ayuntamiento de Astigarraga y la parroquia de Astigarraga para el uso de la vivienda de la parroquia por parte de los servicios sociales del Ayuntamiento.

Tercero.- Comunicar a la parroquia de Astigarraga el presente acuerdo.

Cuarto.- Facultar a la Alcaldesa para la firma del presente convenio y contrato.



Astigarragako Udala

idazkaritza - Sekretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

batez onartu da.

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se aprueba por unanimidad.

9.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena: higiezinaren eskualdaketa.

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- D-6 eranskina onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Astigarragako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena informazio lagapenerako oinarri duena.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea aipatu D-6 eranskina sinatu dezan.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, eta D-6 eranskina sinatuta helaraztea.

Jarraian irizpena bozkatzerara ekin zaio, eta aho batez onartu da.

9.- Convenio Diputación Foral Gipuzkoa: transmisión inmuebles.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- Aprobar el anexo D-6 del convenio de colaboración en materia de cesión de información entre el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Astigarraga.

Segundo.- Facultar a la Alcaldesa para la firma del presente anexo D-6 del convenio.

Tercero.- Comunicar al departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa este acuerdo y remitir el anexo D-6 firmado.

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se aprueba por unanimidad.

10.- Alokairu sozialeko erregimenean Urumea kalea 6 eta 10ko 6 etxebizitza zozketatzeko oinarriak

Alkateak hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Urumea Kalea 6 eta 10 atarietan alokairu sozialeko erregimeneko 6 etxebizitza libre zozketatzeko baldintzak onartzea.

Bigarrena.- Baldintzak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udal Iragarki taulan eta Lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duen egunkarietan argitaratzea, interesatuek eskabidea irailak 29 arte aurkeztea izango

10.- Bases para el sorteo de 6 viviendas en régimen de alquiler social en Urumea kalea 6 y 10.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

Primero.- Aprobar las condiciones para el sorteo de 6 viviendas libres en los portales 6 y 10 de Urumea Kalea en régimen de Alquiler Social.

Segundo.- Publicar las Bases en el B.O.G., en el Tablón de anuncios municipal y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio, abriendo un plazo para la



Astigarragako Udala

Bozkatzailea - Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

dutelarik.

Hirugarrena.- *Jendeak apuntatzeko aukeren berri izan dezan, irailaren hasieran bando bat egitea herrian zehar.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez onartu** da.

11.- Santiagomendiko natur eskola – aterpearen zerbitzuaren kontratuaren luzapena

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Santiagomendiko aterpearen kudeaketa eta Natur eskolaren kontratua Sasoi-Sport enpresarekin urte betez luzatzea, 2018ko abuztuaren 31 arte.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du alde bozkatuko dutela, baina ez dutela jaso balorapen-txostena.

Urkiri zinegotziak azaldu dio txostena bukatzeke dagoela, eta prest egon bezain pronto bidaliko diela. Gainera, azaldu du erabaki dela gaia hezkuntzatik eraman beharrean, ingurugirotik eramatea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **ahobatez onartu** da.

12.- EHBildu taldearen mozioa: Altsasuko gertaeren harira fiskaltzak egindako zigorskaberaren ingurukoa.

Alkateak azaldu du mozioa bozeramaile batzordetik pasa gabe ekarri dela bilerara eta horren arazoia egutegi arazoa izan dela, baina ez duela aurrekaria ezarri nahi. Jarraian, hitza pasa dio Andoni zinegotziari.

presentación de solicitudes hasta el 29 de septiembre de 2017.

Tercero.- *Con el fin de darle mayor difusión, colocar un bando por todo el municipio a primeros de septiembre.*

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se aprueba por unanimidad.

11.- Prórroga del contrato de prestación de servicio del escuela medio ambiental – albergue de Santiagomendi

La Alcaldesa ha presentado el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Prorrogar el contrato de la gestión del albergue de Santiagomendi y la Natur Eskola con Sasoi-Sport por el plazo de un año, hasta el 31 de agosto de 2018.

El concejal Andoni toma la palabra y señala que votarán a favor, pero que aún no han recibido el informe de valoración.

La concejala Urkiri le expone que el informe está por terminar, y que se lo remitirán tan pronto como esté preparado. Además, explica que se ha decidido llevar el tema a través de Medio Ambiente en lugar de llevarlo a través de Educación.

A continuación se procede a la votación del dictamen, que se aprueba por unanimidad.

12.- Moción de EHBildu respecto a las peticiones de penas realizadas por el fiscal sobre los sucesos de Altsasu

La alcaldesa expone que la moción ha sido traída a la reunión sin haber pasado previamente por la comisión de portavoces, y que la razón de ello ha sido un problema de calendario, pero que no quieren sentar ningún precedente. A continuación, cede la palabra al concejal Andoni.



Astigarragako Udala

idazkaritza - sekretaria
idazkariak@astigarraga.eus

Horrek mozioa aurkeztu izanaren arrazoiak azaldu ditu. Gertatutako larrizat jo du, taberna batetako eztabaida terrorismoan bihurtu delako eta oraindik hiru gazte kartzelaratuta daudelako. Eta adierazi du guztiaren azken helburua "Alde Hemendik" mugimendua kriminalizatzea dela. Ondoren, onartua izan dadin, mozio hau aurkeztu du:

1.- Astigarragako Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.

2.- Astigarragako Udalak konpromiso irmoa adierazten dute elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkakoa dela.

3.- Astigarragako Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten dute egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeako epaitegiarena izan behar lukeela.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta, eskatu ondoren mozioak bozeramaile batzordetik pasa gabe bilerara ekartzeko ohitura ez hartzea, adierazi du kontra bozkatuko duela; batetik, mozioaren azalpen-testuarekin ados ez dagoelako, ez baitira gertakariak salatzen, ez biktimei babesa ematen; eta bestetik, legeak aplikatu egin behar direlako.

Alkateak erantzun dio batzordea ez egitearen arazoia izan dela egutegi arazoa. Gaineratu du babesa ematea erabaki dutela, gertakaria oso larriak izan arren, erantzuna desproporzionala delako, baina beraiek ez dutela esaten ez direla

Este expone las razones que le han llevado a presentar la moción. Considera como algo grave lo ocurrido, porque una discusión de bar se ha convertido en terrorismo y porque tres jóvenes se encuentran aún encarcelados. Y señala que el objetivo final de todo ello es criminalizar al movimiento "Alde Hemendik". A continuación, presenta la siguiente moción para su aprobación:

1.- Astigarragako Udalak erabateko desadostasuna adierazten du Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazten du gertaeren bilakaerarengatik, kasua neurrigabekeria eta bidegabekeria onartezin batera heldu dela ikusita.

2.- Astigarragako Udalak konpromiso irmoa adierazten dute elkarbizitzarekiko, justiziarekiko eta pertsona guztien giza eskubideen errespetuarekiko, zuzenbidezko estatu demokratiko baten berezko printzipioak direlako, eta adierazten dute kasu hau inguratzen duen neurrigabekeria normaltasun eta elkarbizitza demokratikoen aurkakoa dela.

3.- Astigarragako Udalak Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babesten dute egitateak terrorismotzat kalifikatzeko zantzuak ez daudela dioenean, eta, beraz, berresten duenean Altsasun joan zen urriaren 15ean gertatutako egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeako epaitegiarena izan behar lukeela.

Toma la palabra el concejal Mikel, y tras solicitar que no se tome como costumbre traer mociones a la reunión sin que previamente hayan pasado por la comisión de portavoces, manifiesta que va a votar en contra; por una parte, porque no está de acuerdo con el texto de exposición de la moción, dado que no se denuncian los hechos, ni se presta apoyo a las víctimas; y por otra, porque las leyes se deben aplicar.

La alcaldesa le contesta que la razón de la no celebración de la comisión ha debido a un problema de calendario. Añade que han acordado manifestar su apoyo porque, aun siendo los hechos muy graves, la respuesta ha

epaituak izan behar.

Andoni zinegotziak erantzun du antzerako beste eraso batzuk ez dutela neurri honetako zigorrak jasotzen, eta kasu honetan mendeku politikoa dela, herri bat kriminalizatu nahi dutela.

Mikel zinegotziak adierazi du ordenamendu juridikoa moldakorra izan beharko lukeela, baina ezin duela mozioa babestu ez bada salatzen gertatutakoa eta ez bada bat egiten biktimaren funtsezko eskubideekin. Eta Andoni zinegotziak galdetu dioenean jaietan egon daitezkeen borrokak udal osoko bilkurara ekarri behar ote diren, Mikel zinegotziak erantzun dio Altsasukoak biktimak izan direla duten lanarengatik.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta aldeko 11 botoekin (EAJ-PNV eta Ehbilduko kideak) eta kontrako bato batekin (Euskadiko Sozialistarena) **onartu** da.

13.- Astigarragako HAPOaren aldaketa HEA23 "Zarkumendegi zabalpena", sagardotegien ordenantzari eta lur urbanizaezineko beste zehaztapenei dagokionez

Alkateak azaldu du aldaketa-espeditareen hasierako onarpenaren iragarkia GAOn argitaratu zela, baina ez prentsan, eta ondorioz, seguritatea juridikoa bermatzeko espeditarea une horretara atzera eraman behar dela.

Andoni zinegotziak zorigaiztoko espeditarea bezala sailkatu ondoren (behin behingoz onartzeko hirutan ekarri baita bilkurara), adierazi du posizioa berdina mantentzen dutela eta abstenitu egingo direla.

Alkateak erantzun dio Zapirain Gruas inguruko alegazioa plan orokorraren berrikusapenean aztertuko dela. Ondoren, proposamen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehenengoa.- "HAPOaren aldaketa-espeditarea – Zarkumendegi Zabalpena 23. HEAri, sagardotegien ordenantzari

sido desproporcionada, pero que ellos no afirman que no tengan que ser juzgados.

El concejal Andoni contesta que otras agresiones similares no reciben castigos de esa dimensión, y que en este caso se trata de una venganza política, que se quiere criminalizar a un pueblo.

El concejal Mikel señala que el ordenamiento jurídico debería ser adaptable, pero que no puede apoyar la moción si no se denuncia lo ocurrido y no se está con los derechos fundamentales de la víctima. Y cuando el concejal Andoni le ha preguntado si se deberían traer al pleno municipal las peleas que pueden ocurrir durante las fiestas, el concejal Mikel le ha contestado que los implicados en Altsasu han sido víctimas debido a la profesión que ejercen.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba** con 11 votos a favor (de Iso miembro de EAJ-PNV y EHBildu) y 1 voto en contra (del miembro de Socialistas Vascos).

13.- Modificación del PGOU referido a la AIU 23 Zarkumendegi Zabalpena, la Ordenanza de sidrerías y otras determinaciones de suelo no urbanizable

La alcaldesa expone que la aprobación inicial del expediente de modificación se ha publicado en el BOG, pero no en la prensa, y que, en consecuencia, se debe retrotraer a ese momento el expediente a fin de garantizar la seguridad jurídica.

El concejal Andoni, tras calificarlo como informe gafe (se ha traído por tres veces a la reunión para obtener su aprobación provisional), ha manifestado que se mantienen en la misma postura y que se van a abstener.

La alcaldesa le responde que la alegación referente a Grúas Zapirain se estudiará en la revisión del plan general. A continuación, presenta la siguiente propuesta para su aprobación:

Primero.- Retrotraer el expediente a la



Astigarragako Udala

idazkari@astigarraga.eus

eta lurzoru urbanizaezineko beste zehaztapen batzuei dagokienez – hasierako onespren-erabakia jendaurrean jartzeko datara atzera eramatea.

Bigarrena.- Dokumentua jendaurrean jartzea, hilabeteko gutxieneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duten bi egunkarietan argitaratuz. Jendaurreko epea hasiko da zenbatzen azken argitalpenetik.

Jarraian **proposamena** bozkatzera ekin zaio, eta aldeko 7 botoekin (EAJ-PNVko eta Euskadiko Sozialisteko kideak) eta 5 abstentzioekin (EHBilduko kideak) **onartu** da.

fecha de someter a información pública el acuerdo de aprobación inicial del expediente de “Modificación del PGOU referido a la AIU 23 Zarkumendegi Zabalpena, la Ordenanza de sidrerías y otras determinaciones de suelo no urbanizable”.

Segundo.- Someter el Documento a información pública, por medio de su publicación en el B.O.G y en dos diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio, durante el plazo de un mes a partir de la última publicación.

A continuación se procede a la votación de la **propuesta**, que **se aprueba** con 7 votos a favor (de los miembros de EAJ-PNV y Socialistas Vascos) y 5 abstenciones (de los miembros de EHBildu).

13.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Pertsona LGTBI+ Eskubideen nazioarteko eguneko mozioa

Andoni zinegotziak adierazi du ekainaren 28an pilotalekuko eskailerak margotu behar zirela, baina euriarengatik bertan behera utzi zela, eta egiteko asmoa ote dagoen galdetu du. Alkateak erantzun dio pentsatu dutela giza-eskubideen inguruko beste ospakizun batean egitea.

b.- DBHko eraikina

Andoni zinegotziak galdetu du hezkuntzaren erantzunik jaso den eta alkateak ezetz adierazi dio. Orduan zinegotziak galdetu dio beste ekimenen bat egitea pentsatu duten, eta alkateak adierazi dio iraillean ez badago erantzunik, DBHko batzordea deituko dutela.

c.- Ikastola handitzea.

Andoni zinegotziak galdetu du Ikastola

13.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Moción del día internacional en favor de los derechos de las personas LGTBI+

El concejal Andoni manifiesta que el día 28 de junio se debían pintar las escaleras del frontón, pero que no se hizo por la lluvia, y pregunta si existe la intención de hacerlo. La alcaldesa le responde que han pensado realizarlo con motivo de algún otro evento que gire en torno a los derechos humanos.

b.- Edificio de ESO

El concejal Andoni pregunta si han recibido respuesta de Educación, y la alcaldesa le contesta que no. El concejal le pregunta entonces si tienen pensado realizar alguna otra iniciativa, y la alcaldesa le indica que si no hay respuesta para septiembre, convocarán la comisión de ESO.

c.- Ampliación de la ikastola

El concejal Andoni pregunta si hay algún avance



handitzearen inguruan aurrerapausorik dauden eta hezkuntzari kontsulta egin zaion. Alkateak erantzun dio horretan daudela.

d.- Haur eskolako eraikin berria

Haur eskola berria non jarri erabaki den galdetu du Andoni zinegotziak. Alkateak erantzun dio oraindik ez dakitela zenbat kostako den Agi eremuan 500 m2ko lokala erostea, ez Ergobian 800 m2 egokitzea; eta datu horiek dituztenean batzordera eramango dituztela eta gero udal osoko bilkurara ekarri.

Zinegotziak erantzun dio bi urte barru ireki behar dela eta horretarako erantzuna lehenbailehen behar dela. Gaineratu du gobernu taldea udal osoko erabakiaren kontra jarduten dagoela, tamaina txikiagokoa lokala jarri nahi badu.

Alkateak erantzun dio bi aukeren kostuak eduki nahi dituztela, ekonomikoki hoberena hautatu nahi dutelako. Erantzun hori inprobisaziotzat sailkatu du zinegotziak, gobernu taldeak Agi eremuan lokal bat hartzeko aukera zuenean –beraiek babestu zutena – eta uko egin ziolako.

Alkateak adierazi du irailerako erantzun bat edukiko dutela, eta orduan – beharrezkoa bada – udal osoko akordioa aldatuko dela.

e.- Monjen komentua.

Andoni zinegotziak adierazi du jakin dutela udal gobernu taldeak interesa duela komentua erosteko, eta zertarako erabili nahi duten galdetu du.

Alkateak erantzun dio monjak herritik doazela eta, agurtzeko asmoarekin, alkatea gonbidatu zutela. Gaineratu du ez dagoela ezer eraikina erostearen inguruan eta hori nondik atera duen galdetu dio.

en torno a la ampliación de la ikastola y si se ha realizado la consulta a Educación. La alcaldesa le contesta que están en ello.

d.- Nuevo edificio de la escuela infantil

El concejal Andoni pregunta si ya se ha decidido la ubicación de la nueva escuela infantil. La alcaldesa le contesta que aún no saben cuánto va a costar la compra del local de 500 m2 en el área de Agi, ni tampoco el acondicionamiento de 800 m2 en Ergobia, y que cuando dispongan de esos datos, los llevarán a la comisión y posteriormente los traerán al pleno municipal.

El concejal le contesta que la escuela debe abrirse en dos años y que se precisa tener una respuesta cuanto antes para poder cumplir con el plazo. Añade que el equipo de gobierno estará actuando contra el acuerdo plenario, si finalmente opta por habilitar un local de un tamaño menor.

La alcaldesa le contesta que quieren disponer de los costes de las dos opciones, porque quieren elegir la más apropiada económicamente. El concejal ha catalogado esa repuesta como improvisación, ya que cuando el equipo de gobierno tuvo opción de hacerse con un local en el área de Agi —opción que ellos apoyaron—, rehusó hacerlo.

La alcaldesa señala que para septiembre tendrán una respuesta, y que entonces, si es necesario, se modificará el acuerdo plenario.

e.- Convento de las monjas

El concejal Andoni manifiesta que han sabido que existe interés por parte del equipo de gobierno municipal para la compra del convento, y pregunta para qué lo quieren utilizar.

La alcaldesa le ha contestado que las monjas van a abandonar la localidad y que la han invitado, con la intención de despedirse. Añade que no hay nada en torno a la compra del edificio, y le pregunta de dónde ha sacado eso.



Astigarragako Udala

idazkaritza - Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Zinegotziak erantzun dio beraiei hori iritsi zaiela, erosteko asmoa dagoela, baita hezkuntza arlorako erabili nahi dela.

El concejal le contesta que a ellos les ha llegado que hay intención de comprarlo, y también que se quiere utilizar para fines relacionados con la educación.

f.- Arrobotxuloko harrobia egonkortzeko obra

Andoni zinegotziak adierazi du hilabete pasa dela eskaintzak bukatzeko epea bukatu zenetik, eta galdetu du kontratazio-mahaia noizko deituko den, gaineratuz obra gauzatzeko garai aproposenena uda izan daitekeela.

Jon zinegotziak erantzun dio ez dagoela arazorik beranduago egiten bada, ez baitago harriak erortzeko arriskurik.

Zinegotziak azaldu dio esleipenean irizpen bakarra hartzen zela kontuan, dirua hain zuzen, eta ondorioz, legez esleipena 15 egunetara egin behar zela.

f.- Obra para estabilizar la cantera de Arrobotxulo

El concejal Andoni indica que ya ha pasado un mes desde que finalizó el plazo para concluir las ofertas, y ha preguntado para cuándo se convocará la mesa de contratación, añadiendo que la época más adecuada para ejecutar la obra puede ser el verano.

El concejal Jon le contesta que no hay problema si se realiza más tarde, ya que no existe riesgo de desprendimiento de piedras.

El concejal le explica que en la adjudicación se tenía en cuenta un único criterio, el económico, y que en consecuencia, la adjudicación debía realizarse por ley a los 15 días.

g.- Kultur etxe berria

Andoni zinegotziak komentatu du gobernu taldeak herriko kultur eragileei esan dietela EHBilduk egindako proposamenaren berri ez dutela. Azaldu du abenduaren 27an udalean aurkeztu zutela, erregistrotik sartu zutela, eta ordutik duela eskura gobernu taldeak, baina ez dutela erantzunik jaso.

g.- Nueva casa de cultura

El concejal Andoni comenta que el equipo de gobierno ha manifestado a los agentes culturales de la localidad que no conocen la propuesta realizada por EHBildu. Expone que la presentaron en el ayuntamiento el 27 de diciembre, que le dieron entrada en el registro, y que el equipo de gobierno dispone de la propuesta desde entonces, pero que no han obtenido respuesta.

h.- Garraio hiria

Andoni zinegotziak adierazi du Aldundia berrito asmoa duela garraio-hiriaren gaia martxan jartzeko, eta gobernu taldeak zerbait egiteko asmoa duen galdetu du.

Alkateak erantzun dio ez dutela informaziorik, ez erabaki horren berririk. Baina azaldu du bere egunean alboratua gelditu zela bideragarria ez zelako, eta horretarako eskumena Aldundiarena dela.

h.- Ciudad del transporte

El concejal Andoni indica que la Diputación tiene la intención de volver a poner en marcha la ciudad del transporte, y pregunta si el equipo de gobierno piensa hacer algo al respecto.

La alcaldesa le informa que no tienen información, ni noticias sobre esa decisión. Pero explica que en su día esa decisión quedó descartada porque no era viable, y que la competencia para ello es de Diputación.

Zinegotziak erantzun dio horrela izan arren, udalak zerbait esaterik edukiko duela.

i.- Irisgarritasun plana

Andoni zinegotziak adierazi du irisgarritasun plana aurkeztu dela, baina batzordean ez zela aurkeztu.

Alkateak erantzun dio teknikariek aztertzen daudela, proposamen desberdinak daudela, eta horiek sailkatzen direnean batzordera eramango dela.

j.- Paisai egitasmoa

Andoni zinegotziak adierazi du paisai egitasmoa bat antolatuko dela entzun dutela, eta zer den galdetu du.

Alkateak azaldu du interesgarritzat dutela ingurumenari buruzko jardunaldi batzuk antolatzea, eta egitasmoa Santiagomendi-Landarbaso korridorearen ekintza-planaren eta esleitu nahi den Santiagomendiko Plan Bereziaren jarraipena dela. Gaineratu du urtero antolatzeko asmoa dagoela, eta pentsatu dutela aurtengoa, urrian, jauregian antolatzea, bertara gonbidatuz unibertsitateko jendea eta ingurugiroarekin esperientzia desberdina izan duen jendea. Bukatzeko adierazi du herritarrek ingurugiroarekin kontzientziatzeko tresna baliagarria dela eta informazio guztia dutenean, batzordean aurkeztuko dutela.

k.- Jai egitaraua

Andoni zinegotziak adierazi du iazko jai egitarauaren agurraren inguruko kexa azaldu zutela, euskarak zuen presentziagatik. Gaineratu du aurtengoa egokia iruditzen zaiela, eta horren konstantzia gelditzea nahi dutela.

El concejal le contesta que, aunque así sea, el ayuntamiento tendrá algo que decir.

i.- Plan de accesibilidad

El concejal Andoni ha señalado que se ha presentado el plan de accesibilidad, pero que no fue presentado en la comisión.

La alcaldesa contesta que los técnicos lo están estudiando, que existen diferentes propuestas, y que cuando se clasifiquen, serán llevadas a la comisión.

j.- Proyecto paisajístico

El concejal Andoni señala que han oído que se ha organizado un proyecto paisajístico, y pregunta qué es eso.

La alcaldesa expone que les parece interesante organizar unas jornadas sobre medio ambiente, y que el programa es continuación del plan de acción del corredor de Santiagomendi-Landarbaso y del Plan Especial de Santiagomendi que se pretende adjudicar. Añade que tienen intención de organizarlo anualmente, y que la de este año han pensado hacerlo en octubre, en el palacio, invitando al evento a gente de la universidad y gente con diversa experiencia relacionada con el medio ambiente. Para concluir, señala que es una herramienta válida para concienciar a la ciudadanía con el medio ambiente, y que cuando dispongan de toda la información, la presentarán en la comisión.

k.- Programa de fiestas

El concejal Andoni señala que el año pasado se quejaron del saludo del programa de fiestas, debido a la presencia que tenía el euskera. Añade que la presencia que tiene este año les parece correcta, y que quieren que quede constancia.



Astigarragako Udala
idazkaritza - Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2017ko uztailaren 19an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria